

Zaharra zara, Bilbo




ULA IRURETAGOIENA

SBAU 2021 hirigintza eta arkitektura buruzko nazioarteko biurtekarria Seulen egiten ari dira uneotan. Bilbo hiria bertan da, beste hiriekin proiektuak aurkezten, baina besteak baino stand gehiago okupatzen (!). Bilboko Udalak Seulen egindako kolonizazioan erakutsi ditu diseinuarekin jantzi dituen proiektuak: Fosterrek egingo duen Arte Eder museoaren zabalpena, Kunsthal-Design institutua, Auzo Factory Matiko, As Fabrik, Bilbao CT Lab, Azkuna Zentroa. Bilboko Plan Estrategikoen zinegotzia da pastela azaltzeko ordezkaria. Menua zerbitzaturik dago.

Oharkabeko eta munta gutxiko albisteak da arkitekturako ikuspegitik; bienalean bildutakoak etorkizunetik gutxi du, zaharrak berri jantzirik, ez besterik. Eraikinak hiriko azpiegitura klabeak bilakatuko diren ideiatik burutu da, eraikinek etorkizuneko edabe magikoa izango balute bezala. Arkitekturak gaitasun eraldatzailea izan dezakeen arren, plan baten gainean egin behar da, sarete sozial eta politikoa baten emaitza gisa, bestela espazio hutsa izateko arriskua du.

Bilboko Udalari trebezia handia onartu behar zaio hiriaren marketin kanpainak egiten, "Bilboren transformazioa" munduko ertz askotara eramaten jakin delako. Ez dezagun ahanztz hirien komertzializazio fenomeno globalaren hasiera Bilbon gertatu zela, Guggenheim efektuarekin. Baina oiloak bere arrautza guztiak ez al ditu eman dagoeneko? Ezaguna zaigun matrakak, asperdura eta lotsa baino gehiago, larritasuna sorrarazten du. Bestelako foroetan esaten denagatik, hurrengo pantaila batean gaude. Hiriei eskatuko zaie datorren baliabideen eskasia aroa berregituratzea, gizartearen segregazioa, klimako errefuxiatuak edo hirien osasuna kudeatzea, eta dagoeneko berandu goaz.

Gurean, "Mugak" Euskadiko Nazioarteko Arkitektura bienalaren 3. edizioa martxan da. Ea bertan esperantzarako osagirik eskaintzen duten. ●



Supermanen musuak bihurtu nau homofobo

JON TORNER ZABALA

Komikizale amorratua naiz, baina, ez dakit zergatik, guztiok ezagutzen ditugun superheroien harribenturek ez naute gehitxo erakartzen. Irakurri ditut batzuk eta, egiari zor, gizonezko protagonista hetero eta emakume hipersexualizatuen figurek ez dute nire barnean karrankarik eragiten. Areago, normaltzat-edo ditut. Erraza zait, hortaz, albisteak eragin duen zalaparta umorez hartzea.

"Superman bisexuala izango da komiki berrian", dio egunkariko goiburuak. Jakin-minak jota, iritzi kategorikoak gordetzen dituen kutxa ireki dut: Twitter. Ez dit kale egin. "Superman bisexuala?! Zer barrabaskeria da hau?! Heroi mitiko bat modu horretan transformatzea! Zer izango da hurrena, Hulk transexuala?". Gogor mintzatu da katedra, norbaitek ohartarazi dien arte pertsonaia bisexuala ez dela denok buruan dugun Superman (Clark Kent), haren seme *lurtarra* baizik (Jon Kent). Berdin du, katedrak gogor eta ozen hitz egiten jarraitu du: "DC Comics konpainiaren helburua ez da dirua irabaztea besterik" –orain arte publikatu dituen komiki, sortu dituen film eta fabrikatu duen *merchandising* guztia gizarte justuago bat lortzeko egin balu bezala–, "gutxiengo-lobby baten presioei men egin diete, heroiari identitate sexual moderno nahasgarria eranste" –Spoiler: bisexuala izateak ez du esan nahi egun osoa mutilak musukatzen pasa eta gaizkiaren aurka larrosak jaurtitzen borrokatuko duenik–.

Amaigabeak dira perlak. Bada DC Comics-eko "degeneratuen" balore berriak lotu dituenik Espainiako Gobernuaren "Agenda 2030" egitasmoarekin; eta bada beste testigantza bat zeinak barrea eragiten duen, hain negargarria baita: "Tamainako tontakeriei esker jendea homofobo ari da bihurtzen. Ni ez nintzen, baina hau? Potroak ukitzen dizkirate, zer behar dago horretarako?". Ez, noski, ez zinen homofobia. Homofobo bihurtu zaituena da galtzontziloak kanpoaldetik daramatzan heroi kementsuaren semea bisexuala izateak, zeina, gogora dezagun, marrazki bat den!

Komikizaleok batzuetan ez dugu gustuko aspalditik ezagutzen ditugun pertsonaien iruditeria moldatzea (*qaamigo*, tradizioaren pisua hemen ere bai), baina etengabe gertatzen da, eta horien aurrean Supermanen seme bisexualaren kontuarekin jendeak erreakzionatu duen antzera erreakzionatzeak, erakusten du non gauden eta zein beharrezkoa den pertsonaia/istorio berritzaileak sortzea, kasu honetan sexu askapenaren gaiarekin lotuta. Fikziozko super-heroien baten marrazki batek (!) enbarazu egiten duenean... ●